



Gogoan al duzu nik gogoan dudana?

Loreto Martínez Troncoso

Edurne Rubio

edurne **19:09**

Ez dut erabat gogoratzea lortzen. Oso goiz gogoratu ginen egun horretan.

loreto **19:09**

?

edurne **19:09**

:-)

19:10

gogoratzea
v. intr.
3. Sair do sono;

loreto **19:11**

Non gaude baina?

edurne **19:11**

Egunsentia baino lehen.

loreto **19:11**

Gaua al zen artean? Ez dut ondo gogoratzen... bai ordea zera, hemen dioten moduan, *excités comme de puces* geundela.

edurne **19:12**

Gaua zen, urte sasoi horretan gauak oso laburrak izaten badira ere... baina bai, gauez iritsi ginen mugara.

loreto **19:12**


Geltokira hain zuzen, eta hantxe hartu genuen, Vila-Matasek geroago esan zuen bezala¹, «espedizioa». Hori bai, gogoan dut eguna altxatzen ikusi nuela (*le jour se lèveren* hitzez hitzeko itzulpena).

edurne **19:13**

Izan ere, geltokian egin nituen argazkiak lauso samar daude, ez zegoen eta argirik... batzuetan ezabatze kotan izan nintzen (beti gertatzen zait argazki lausoekin). Ikusten, orain poztzen naiz gorde izanaz.

19:15

edurne a posté le fichier IMG_1172. JPG aux membres de ce clavardage

oreto 19:16

Haiek bai oroitzapenak!

edurne 19:16

Baiibai...

loreto 19:18

Hasiera batean esperientzia horri, une horri, ezertarako ez den ordua edota inorena ez den ordua deitu genion?... Ez dakit zehatz zein hurrenkeratan, baina barregarria da gaur pentsatzea: ezertarako ez den orduak ez baitu inolako antzik inorentzat ez den orduarekin.

edurne 19:19

Inorentzat ez den ordua!!!

loreto 19:19

Hori da, ezertarako ez den ordurik ez da sekula izan, ezta?

edurne 19:19

Santik geroago esan zuen bezala²: jaberik gabeko ordua, ez Espainiarena ez Portugalena³...

loreto 19:21

Bai, «inorena ez den» ordua zera da... zera izango litzateke/zen... posible mugagabeen ordua, ihes-lerroz beteriko ordua, norabide ugariko bidegurutzea, ekintza ordu bat: nonbaiterantz joateko erabakia hartzea. «Ezertarako ez» kale itxia izango litzateke? edo kale itsua?

19:22

Gogoan dut Clément Rossetek gurutzatze une horri buruz hitz egiten duela bere *Le réel: Traité de l'idiotie* lanean. (laburpena bilatuko dut)

19:22

edurne a posté le fichier IMG_1179. JPG aux membres de ce clavardage

loreto 19:24

Gogoan dut han egin genuela topo, besarkada eman genion elkarri, eta musu, eta aurkeztu egin ginen... esnatu egin ginen (kafe autonomoz) eta gero oinez joan ginen Fuentes de Oñoron barrena⁴ aduana (muga?) ingururantz.

edurne 19:25

Kafe autonomoak?????

loreto 19:25

Aurreko egunean denontzako kafeak erosi genituen. Datorren plastikozko ontzia astinduz berotzen den kafea... Uste dut hondoan daukan kapsula bat puskatu eta kafea «auto» berotzen duela, autokafea?

edurne 19:26

Ah!!! Kafe nomadak! :-) :-)

loreto 19:26

segundo bat, deia.

edurne **19:29**

Asteburu honetan Chris Markerri buruz irakurtzen egon naiz. Gogoan al duzu lehengoan kartografia subjektiboari buruz hitz egin genuela?

Begira: *Immemory*-ri buruz:

→ www.derives.tv/spip.php?article78 (laburpena) «Mon hypothèse de travail était que toute mémoire un peu longue est plus structurée qu'il ne semble. Que des photos prises apparemment par hasard, des cartes postales choisies selon l'humeur du moment, à partir d'une certaine quantité commencent à dessiner un itinéraire, à cartographier le pays imaginaire qui s'étend au dedans de nous. En le parcourant systématiquement j'étais sûr de découvrir que l'apparent désordre de mon imagerie cachait un plan, comme dans les histoires de pirates»⁵.

loreto **19:35**

Bueltan nator atzera, itxaron, irakurtzen ari naiz eta...

edurne **19:35**

Nik ez nuen geltokitik mugarainoko bidea bizi izan... Beno, bai, ez ordea espedizioarekin. Ion⁶ eta biok «aurreko talde» gisa joan ginen, instalatzeko tokia bilatzeko. Korrika eta urduri joan ginen... Argindarra aurkitu behar genuen bozgorailuarentzat eta ordenagailuentzat eta ia-ia «inorena ez den ordua» zen, hogeit hamar minutu falta ziren 9hak izateko...

Ionek aduanatik hurbileko ijito kanpamentu batera joan nahi zuen, eta haiei gu entxufatzeko toki bat eskatu...

loreto **19:38**

Ahantzia nuen jada ijito kanpamentua!

edurne **19:38**

Kanpamentuaren ideia gustatzen zitzaigun, baina azkenean ez urruntzea erabaki genuen, mugan geratzea. Segundo gutxiko tartean hartu beharreko erabakia izan zen. Ez dakit ijito kanpamenturaino joan bagina zer gertatuko ote zen...

loreto **19:39**

Zer izango ote zen?

edurne **19:39**

Eta zer gertatu zen Ion eta biok toki bila ari ginen bitartean?

loreto **19:40**

Bai, espedizioarekin hasi nuen bidea, baina gero Júlio eta biok ere aurrera egin genuen zuekin elkartzeko eta «solasetarako» dena instalatzen amaitzeko, lerroaz bestalde jada, Vilar Formoson jada, Turismo tabernan (bai kointzidentzia, ezta?)

Gogoan dut lerroa igaro aurretik enara pila bat ari zela inguru hartan hegan.

edurne **19:41**

Egia da! Lehentxeago etorri zineten telefonoa ordenagailuan konektatzeko. Probak egiten aritu ginen. Júliok bere mugikorraz hots egiten zuen 10 metroko tartetik eta zu grabatzen saiatzen zinen...

Argi eta garbi gogoratzen zaidana muga presiopeko uraz garbitzen zuten goizeko makinaren zarata da.

loreto **19:42**

Ez zuen funtzionatzen! Gogoan dut Júliok lekua deskribatzen zigula, arkitektura, desberdintasunak (tarteak)... eta azkenean kantu bat kantatu zigula portugesez.

19:43

Nik ere bai, oraindik ere makinak entzuten ditut gure *beiran*.

edurne **19:43***À nosso lado...***loreto** **19:44**

Zer ote zuten pentsatzen Turismo tabernatik pasatzen zirenek han kanpoan ordenagailu, telefono, bozgorailuekin ikusten gintuztenean?...

edurne **19:45**

Tabernako arduradunari terrazaraino luzagarri bat pasatu eta mahai guztiak erabil ote genitzakeen galdetu genionean, harriturik begiratu zigun, baina ez zuen ezer galdetu... oso portugesa, ezta?

loreto **19:46**

Bai *saudadeak!* *Um bolo de arroz e uma meia de leite por favor!*

edurne **19:46**

:-P

loreto **19:47**

Ezingo genuke esan inorena ez den toki bat denik...

edurne **19:47**

Bai, egiaz oso leku zehatza da.

loreto **19:48**

Pentsatzen ari naiz Ursula Biemannen *Performing the borderen* emakume batek esaten duena. Muga egiazko bihur dadin ezinbestekoa dela gorputzek hura zeharkatzea, hori gabe muga diskurtsoko eraikuntza bat besterik ez baita.

19:49

Filmeko ekintza Estatu Batuak (/)(-) Mexiko mugan gertatzen da. *Offeko* ahotsak hori esaten digunean, auto bat doa ezerezaren erdian, basamortuaren erdian dagoen eta inorena ez den lurreen eraikita dagoela dirudien mugako zati baten ertzean aurrera.

19:51

Hemen, bi herri daude, ia-ia bat eginda. Erdian, aduanetako etxolak, hutsik daudenak (banderak, ordea, harro haizetan). Hau ote diskurtso eraikuntza honetatik geratzen den bakarra? *Aduana/la alfândega* (oroitzapen indibidual eta kolektiboaz gain)?

edurne **19:54**

Gogoan dut Santik abiarazi zuela lehen solasaldia eta horrela hasi zela: «Hemen gaude, pertsona bikainez eta alferreko banderaz inguraturik». Bederatziak ziren, Espainiako orduan, zortziak Portugalgoan. Sevillara hots egin zuen, Aliciari⁷, umea haurtzaindegian utzi berria zuen eta.

loreto **19:55**

Nola pentsatu genuen Aliciari elkarrizketa egitea?

edurne **19:55**

Itsasarterako *fadaiat* proiektuari buruz irakurtzen aritu ginen.

19:57

«Ekintza-gertakari-laboretegi bat Europa Sendotasunaren eta jendetzaren Afrikaren arteko muga den Gibraltarreko itsasarterako jakintza askatasunari eta mugimendu askatasunari buruz». → <http://fadaiat.net>

Termino berriak, geografia berriak, edertasun forma berriak bilatzeko egiten duen lana interesatzen zitzaigun... Teknologia berriei buruz pasio hitzez mintzo zen, eta beste erabilera batzuk proposatzen zituen... Egiten zuen kontakizun utopistak... lanaren, politikaren eta artearen arteko harreman berriek, erakartzen gintuzten.

loreto **19:58**

Egia da, baina hark ez zigun *fadaiañ* buruz hitz egin, ala bai? Alentejo eta Extremadura arteko mugako beste proiektu bati buruz aritu zitzaigun, ezta?

edurne 19:59

Egia da! Ahaztuta nengoen! Aurreratu egin naiz...

loreto 19:59

Aurrera egiten? Nondik baina? Norantz ordea?

edurne 20:00

Egia esateko, ez dakit harekin *fadaiañ* buruz hitz egitera iritsi ginen ere... *fadaiañ* 2005ean gertatu zen (uste dut) eta Aliciak hitz egin zuen proiektu baten jarraipena zen: *Almadraba* zen hura (1997).

Baina, egiaz, Aliciak hitz egin zigun lehen proiektua *Além da Agua* (1996) izan zen, Portugalgo mugan hori ere.

loreto 20:01

Ah! Bai! *Além* = (uretatik) haratago. Muga marrazten duen Guadianaren zati horretatik haratago... Ura, metafora gisa, bizi-iturri gisa, jario gisa...

20:02

...jakintzarako eta ideien transmisiorako tresna gisa...

edurne 21:02

«Kultura flotagarria» esan zuen.

21:04

Gogoan al dituzu patera edo txalupa batzuekiko ekintza bati buruz irakurri zituen oharrak?

loreto 20:05

Hori jada *Almadraba* proiektuko ekintza bat izan zen. Hurbiltasun hori (Europa eta Afrika bereizten dituenak 15 km ditu zabal), aldi berean urruntasuna den hori esploratu nahi zuten, hurbilekoa eta banantzen gaituena...

20:06

Interbentzioaren izena *La misma tierra* zen. Hareaz betetako bi patera abiatuko ziren itsasertz banatatik. Itsasarte erdian elkartu, eta han harea aldatu egingo zuten ontziz. Gero hondartzetara itzuliko ziren, harea atzerritarra lagatzeko, horrela utzi egingo zion eta atzerritar izateari.

Ez zen, baina, gauzatzerik izan...

edurne 20:07

Egia esateko, ez nuen oso gogoan ekintza zertan zetzan zehazki, bai ordea frustrazioa, ezintasuna... Uste dut tolesgabetasunez (kultura/errealitatea) eta DENBORAZ hitz egiten zuela, baimenaren zain, itxaron denbora...

20:08

Beno, ez dakit ziur hori zen hark esandakoa. Beharbada nire interpretatzeko era izango da.

loreto 20:09

Bi egun eman zituzten zain, baina baimenetako bat ez zen iristen.

20:11

Bai, nire oharrak atzera irakurri, eta ohar horietan hark galdetu egiten zion bere buruari ea «ezinezko» hori ez ote zen... izango «gure eskarmentu ezagatik? gure tolesgabetasunagatik? gure ulermen faltagatik? gure larderiagatik? gure begiratze inposatzaile mendebaldarragatik? gure denbora faltagatik?»

edurne 20:12

Bai.

20:14

Egia esateko, hiru solasaldien hurrenkerak ongi funtzionatu zuen: lehenik Alicia oso ikuspegi politiko eta sozial batez, gero Oskar³ gorputzen hurbiltasunaz ari zela, eta gero Vila-Matas, oker ez banago batez ere bidaiaz hitz egin ziguna bera.

loreto **20:15**

...bidaia ideiaz alegia. Ez hainbeste bidaia fisikoaz baizik eta bidaia mentalaz. Bi bidaia horien artean. Esaterako, Rousseli buruz hitz egin zuen, honek bi aldiz egin baitzuen munduko bira, baina horretaz ez zuen bere liburuetan askorik idatzi... (badirudi ezen *Impressions d'Afrique* idazteko Afrikara bidaiatu zuela, baina ez zela bere hoteleko gelatik irten).

20:16

Berak asko bidaiatzen duela ere esan zigun, baina bere benetako bidaia bere idazmahaiaren inguruan gertatzen dela, bere idaztean.

edurne **20:16**

Eta Santik bidaiari geldia aipatu zuen, Robert Walser.

20:19

Bai. Itzul gaitezen, baina, DENBORARA. Oskarrek denboraz hitz egin zigun, gogoratzen al zaizu?

edurne **20:20**

Horregatik ari nintzen pentsatzen solasaldiak nola joan ziren elkarrekin lotzen: Aliciak denboraz hitz egiten amaitu zuen (denbora mendebaldarrak) eta Oskarrek gero bere buruari denboratik irteteko moduaren galdea egin zion.

loreto **20:21**

«Espezie gisa dugun drama edo tragedia bat, bizi izatea egokitu zaigun denbora», esan zuen.

edurne **20:23**

Nolabait, gurea, «denboratik irteteko» ahalegin bat zen. Inorena ez den ordua espazio eta denborazko parentesi bat zen: bizi izaten ari ginen, lan egiten, 9ak eta 9ak artean, bi tokiren artean. Erlojuari mugaren zein aldetatik begiratu, bataren edo bestearen etorkizuna edo iragana bizi izaten ari ginen. Denboran zeharreko ordubeteko bidaia.

loreto **20:25**

Honela esan zuen: «Zuek bidaian zarete eta bidaia mugako egoera bat da berez».

edurne **20:25**

Ion eta Oskarrek Bidasoako mugaz hitz egin zuten, Irungo Nazioarteko Zubiaz.

loreto **20:26**

Bai, haiekin hiru mugatan zehar bidaiatu genuen: Irundik, berak jaio ziren tokitik, Vilar Formosora, gu geunden tokira alegia, eta Genevako aduanetatik, Oskar hiri hartan ari zen-eta lanean une horretan bertan, kamioiz, bagoiz inguratuta... Irunen bezala, berak gogoratu moduan, eta gure inguruan bezala...

(bidaia mentala egiten dugu, bakoitzak bere memoriaren –kolektiboa izan ala ez–, bere irudimenaren, bere fikzioaren esperientziaz).

edurne **20:29**

Are gehiago, gogoratzen dut zurea ez den herrialde batean bizi izateaz hitz egin zuela, mugako bizitza suerte batez... Hemen bizi naizenetik beti sentitu dudana zerbait da.

loreto **20:29**

(*moi aussi*)

edurne **20:30**

Être un étranger à vie.

loreto **20:30**

Eta norbera «etxera itzultzen denean», dagoeneko ez da hangoa, dagoeneko «artean» dago.

(eta «*dans la vie*»)

edurne **20:31**

Agian zerikusirik izango du Vila-Matasek hitz egin zigun bidaia lerrozuzenarekin:

20:31

«Espedizioa beldurtzeko asmorik gabe: bada bidaia moderno bat, Odiseako bidaia zirkularra ez den bat, Magrisek hitz egiten digun bidaia lerrozuzena da, itzulera posiblerik gabea» esan zuen (eta hotzikara batek zeharkatu zidan gorputza).

20:32

Geroago gauza bera entzun izan diot hitzaldi eta elkarrizketetan, baina sekula ez nau mugako egun horretan adina harritu.

loreto **20:36**

Pessoarena dugu hurrena:

«Viajar! Perder países!
Ser outro constantemente,
Por a alma não ter raízes
De viver de ver somente!

Não pertencer nem a mim!
Ir em frente, ir a seguir
A ausência de ter um fim,
E a ânsia de o conseguir!

Viajar assim é viagem.
Mas faça-o sem ter de meu
Mais que o sonho da passagem.
O resto é só terra ecéu»⁹.

edurne **20:38**

Galdetu zenionean nola heltzen dion, nola parafraseatzen duen Pessoa, esaten duelarik «bidaiatzea, suizidioak galtzea, suizidio guztiak galtzea. Dauden heriotza-aukera ohorezkoak agortzen diren arte bidaiatzea», esan zuen gauza askotarako balio izandako esaldi bat zela. :-)

loreto **20:39**

«Bidaiatzea, teoriak galtzea, teoria guztiak galtzea», Lyonera gonbidatu zuten batean inor ez zitzaion bila joan eta 24 ordu eman zituen hoteleko gelan eleberriar buruzko teoria bat idazten... Trenez Bartzelonara itzultzen ari zela konturatu zen idatzi behar zuena ez zela teoria bat, eleberririk bat baizik. Eta horrela eleberririk bat hasteko teoria guztiak galtzera iritsi zen.

edurne **20:43**

Oskarrek ere galtzeaz hitz egiten zuen, pisua (iraganarena?) galtzeaz.

loreto **20:43**

Iraganarena? ez dut gogoratzen iraganarena esan zuenik, bai behintzat maila intelektualean erlaxatzea eta gogoari libre uztea. (Eta bai, maila intelektualean iragana da, ezta?).

edurne **20:46**

Hitz egiten zigun piezaren izena *Sandwicha* zen, ezta?

loreto **20:46**

Ez, *sandwicha* «gure arteko» titulua zela esan zuen. Baina benetako titulua *Titulurik gabe* da.

20:47

Ibilbide baten ondoren, ikuslea areto batean sartu eta dagoeneko han lurrean etzanda zegoen gorputz baten gainean etzatera gonbidatzen zuten. Gero beste gorputz bat etzaten zitzaion gainean, eta horrela ikuslea sandwich batean geratzen zen. Hor, «pisua galtzeaz» hitz egiten zuen autofikzio bat kontatzen zioten

...orain ez dut gogoratzen egoera hau banaka gertatzen zen edo gorputz talde bat zen sandwich gisa (nik lerroan jarrita irudikatzen ditut.)

edurne **20:50**

Gezurrik esaterik ez dagoen egoera bat.

20:51

Gorputzak elkarrengandik hain hurbil daudela, gezurra ezinezkoa da.

loreto **20:51**

Argi dago ezen barregura sartzen bazaizu, dardarka edo izerditan hasten bazara ezin duzula saihestu.

edurne **20:53**

Vila-Matasek literaturako egiaz /fikzioaz (= gezurraz?) ere hitz egin zuen... «Dikotomia kristaua eta lelo samarra, inork ez du gezurra esateko idazten».

loreto **20:53**

:-D

20:53

Bernardo Atxaga eta biak errealitate eta fikzioari buruzko topaketa batera UNIARA gonbidatu zituztenekoaz hitz egin zigun. Sevillara zihoala pentsatzen zuen Atxaga ez zela topaketara azalduko. Geltokira iritsi zenean, taxilari bat zuen zain, baina han erabaki zuen bera izango zela topaketara joango ez zena eta desagertzea erabaki zuen.

edurne**20:56**

Horrela hasten da *Doctor Pasavento*, ezta? Taxia ez hartzea eta Napolira joatea erabakitzen du. Eta harrezkero, geltokiko eskailera mekanikoen (han badira eta) gogorazten diote egun batean desagertu egin zela.

(desagertzea benetan gertatu zena baino askoz sinesgarriagoa izan zen).

loreto**20:58**

Bai, honela esan zuen: «Iruditzen zait han gauza garrantzitsuren bat gertatu zela nire bizitzan».

edurne**21:00**

Zer gertatuko ote zen solasaldiak Turismo tabernan egin beharrean ijito kanpamentura joan bagina?

loreto**21:01**

Horixe da! Agian hortxe has daiteke gure kontakizuna.

Post Data**loreto**

Nire buruari galdetu egiten diot... zergatik, nola sortu ote zen une hau... tarteko geldialdi hau egiteko ideia..

edurne

Nik uste dut mugako solasaldien ideia *miaketak* sortu zen aldi berean sortu zela ia-ia... Ez dakit Artelekuko edo Serralveseko bilera batean izan zen. Ion eta Blancak proposatua ziguten Mugatxoan berekin pentsatzea atzera.

loreto

Mugatxoanen mugikortasunaz hitz egin genuen, proiektu autonomo eta ibiltari gisa (familia mugikorra?), hainbat egiturak barnean hartzen zutena bera...

Eta gainera, gu dagoeneko Mugatxoanen esperientziatik igarota geundenez, uste genuen bidaia une hori, Donostia eta Porto arteko pasaia hori esperientziaren zatia zela eta kontuan izan behar genuela.

edurne

Bilera horietatik abiatuta *miaketak* sortu zen. Harrezkero Mugatxoanen bidaiatzen dugu.

loreto eta edurne

miaketak honakoak gara: alejandra, amaia, edurne, júlío, larraitz, loreto, maría, sandra.

- 1 Enrique Vila-Matas, idazlea. («Baina idazle baten biografiaren zatirik onena ez da haren abenturen kronika, baizik eta haren estiloaren historia». Vladimir Nabokov. *Opiniones contundentes*).
- 2 Santiago Erasok, Artelekuren zuzendari ohiak, Mugatxoan inspiratzen, laguntzen eta bultzatzen du hastapenetik orain arte. Gaur egun Andaluziako Nazioarteko Unibertsitatearen UNIA artepentsamientoren eduki-taldekoa da, eta hainbat erakunde publiko, kultur enpresa eta beste zenbait gizarte mugimenduren kolaboratzaile independentea da.
- 3 Portugalera bidaiatzean oso kontuan hartu behar da 60 minutuko ordu-aldea dagoela. Han Espainian baino ordu bat gutxiago da. → www.emprenderviajes.com/informacion_de_interés_de_portugal.htm



- 5 «Nire lan hipotesia zera zen: oroimen luze samar oro dirudiena baino egituratuagoa izan ohi dela. Alegia, itxuraz zoriaren arabera hartutako argazkiak, momentuko umorearen arabera hautatutako postalak, behin kopuru batetik aurrera, ibilbide bat mugarritzen hasten direla, gure barnera zabaltzen den irudizko herrialdea kartografiatzen hasten direla. Ibilbide horretan barrena abiatuz gero, seguru nongoen nire iruditeriaren itxurazko desordenak izango zuela izkutuko plano bat, piraten istorioetan gertatu ohi den bezala».
- 6 Ion Munduate, Blanca Calvorekin batera, Mugatxoan proiektuaren zuzendaria da. *La hora de nadie* 2008ko ekainaren 30ean egin zen, Mugatxoan egitasmoak urtero Donostiatik Portora egiten duen bidaian. → www.mugatxoan.org/blog
- 7 Alicia Pinteño BNV producciones enpresa kulturalakoa da. Enpresak antolatutak dira *Além da Agua*, *Copia Cabana* 1996an, eta *Almadraba*, 1997an: solasaldi kritikoak artearen eta merkatuaren eta kulturaren mundilizazioaren artean, artearen eta bizitzaren artean.
- 8 Oskar Gómez-Mata L'Alakran antzerki konpainiako zuzendaria da eta, lehenbizikoz, 2006an parte hartu zuen Mugatxoan egitasmoan, lantegi bat eramanez eta *Optimistic vs Pesimistic* pieza jendaurreratuz. Mugatxoan 2009 egitasmoan bere obra berria aurkeztu zuen: *Kairos*, *Sísifos* y *Zombies*.
- 9 «Bidaiatzea! Herrialdeak galtzea! / Etengabe beste bat izatea, / Arimagatik sustrairik ez edukitzea / eta ikusiz bakarrik bizitzea! / Inorena ez izatea, ez nirea ere! / Aurrera egitea, jarraitzea / xedearen ausentziari / eta iristeko irrikari! / Horrela bidaiatzea da bidaia. / Bidaia bera amets eginda noa, / besterik ez dut nirea. / Gainerakoa, lurra eta zerua».